

3 LANAK Errepideen asfaltatze kanpaina aurrera doa

Lasarte-Oriako Udalak asfaltatze kanpaina hasi zuen astelehenean. Sasoeta pasealekuan hasi ziren lanak eta horien marxa ikusita, Iñigo de Loiola eta Pablo Mutiozabal eremura lekualdatuko dira gaur makinak. Eremuan trafiko mozketak eta aparkaleku murrizketak egongo dira lanek irauten dituzten bitartean. Aldaketa guztien berri emango da seinaleen bitartez eta Andatza plazan aparkatu ahalko dute herritarrek.

5 EUSKARA Euskararen 9. Maratoia aurkeztuko da

Lasarte-Oriak lau urtean behin erroka berezia dauka, 40 orduz euskaraz egitea. Udaleko Euskara Batzordeko eta Ttakun kultur elkarteko kideak buru belarri ari dira lanean Euskararen Maratoia jaialdi handia izan dadin. Zortzikotea, leloa eta beste hainbat kontu asteazkenean, maiatzaren 11n, arratsaldeko 19:00etan Gaztelekuan egingo den aurkezpeneari argituko dira. Lasarte-Oriako elkarte eta herritarrak gonbidatuak daude honetan parte hartzera.



Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak euskara sustatzeko dituen sei diru-laguntza lerroak aurkeztu ditu. Banakakoei edo enpresei zuzendutako laguntzak dira.

Jon Antxordoki Euskara Batzordeko lehendakaria eta Iñaki Arruti teknikaria atzo goizean Euskara Batzordeak 2016 urtean herritar eta enpresei zuzendutako diru-laguntzak aurkeztu zituzten. Antxordokik agerraldian aipatu zuen legez, "momentuz, 57.680 euro daude horretarako, baina aurrekontuak onestean 68.680 euro izango dira. Horrek %20ko igoera ekarriko luke."

Bekak

2015-16 ikasturtean euskara ikasten aritu diren herritarrek matrikula-prezioaren %85 arteko beka jaso dezakete.

Udalak onetsita duen irizpideari jarraituz, Euskara Batzordeak %85a arteko beka eskainiko ditu. Beka jasotzeko, Lasarte-Oriako erroldatua egon behar da eta egindako ikastaroan gutxienez % 85eko asistentzia bete behar da.

Ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

Udako ikastaroak

Unibertsitateko ikasleek, langabetuek edo erretiratuak direnek, berriz, aurtengo udan unibertsitate bateko uda-ikastaroa euskaraz eginez gero, matrikularen %50 arteko diru-laguntza jaso ahal



Iñaki Arruti Euskara teknikaria eta Jon Antxordoki Euskara Batzordeko lehendakaria agerraldian.

izango dute. Bekak soilik matrikulako gastuak estaliko ditu.

Kasu honetan ere, dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera. Beranduenez urriaren 31n.

Begiraleak

Aurreko irailaren 1a eta aurtengo abuztuaren 31 bitartean begirale ikastaroa hasi eta bukatzen duten herritarrek, matrikularen %50 arteko beka jasotzeko aukera dute, 250 euro gehienez, baldin eta ikastaroa euskaraz eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izan bada eta alderdi teorikoa gainditu baldin badute.

Zuzendari ikastaroa egin dutenen artean, berriz, baldintzak berdinak dira eta bekaren gehienezko kopurua 150 eurotakoa izango da.

Batzuen zein besteen kasuan, dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera. Beranduenez urriaren 31n.

Gidabaimena

2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditu dutenek ere aukera dute baimen teorikoaren matrikularen balioa berreskuratzeko, gehienez 400 euro. Buruntzaldean 10 sari zozketatuko dira, horietako bi Lasarte-Oriako. Zozketa 2017ko urtarrilean egingo da.

Enpresa eta elkarteak

Enpresa eta elkartei begira laguntza puntualak izango dira errotuluak, irudi korporatiboa, web-orriak, enpresan euskararen erabilera normalizatzen lagun dezaketen programa informatikoak eta kanpoko erabilerarako dokumentazioa euskaratzerako orduan.

Aurreko urteko azaroaren 1etik aurtengo urriaren 31 bitartean egindako jarduerak lagunduko dira eta eskaerak ere epe horretan zehar egin ahal izango dira.

Baietz gurean!

Izen hori du Buruntzaldeko udalerrietan dauden hamar

langile baino gehiagoko enpresetako jarduerak euskalduntzeko laguntzak ematea helburu duen programak.

Enpresa batek Baietz gurean! egitasmoan parte hartzea erabakitzen duenean, Udalak enpresari neurketa egingo dio eta 100 puntuko tarte batean kokatuko du. Puntu-tartea adierazteaz gain, enpresari hurrengo puntu-tartera pasatzeko zein neurri har ditzakeen proposatzen dio.

Jauzi hori Udalak 1go neurketatik urtebeteko epean egingo duen 2. neurketa baten bidez zehaztuko da eta horren arabera emango dio, gainditutako tartean arabera diru-laguntza. Sistema hau, Eusko Jaurlaritzak esleitzen dituen Bikain ziurtagiriaren sistemara egokituta dago.

Informazioa

Deialdi bakoitzaren baldintzak eta eskaera-orriak Udalaren webean eskuragarri daudela jakitera eman zuen Antxordokik. Era berean, Euskara-zerbitzura ere hurbil daitezke edo 943 376 184 zenbakira deitu dezakete interesa dutenek.

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.com
943 36 46 00

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

**Maiatzak 7, 11 eta 14
ATE IREKIAK**

Fabrikazio mekanikoa | Elektrizitate-elektronika | Administrazioa | Produktzio zerbitzu eta mantenimendua | Energia eta ura

**Erdi eta goi-mailako zikloak
A, B eta D ereduak**

Logoak: EUSKO JAURLARITZA, GORRIKORRIKO VASCO, ER

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda
INQUIETUD

38-60 neurriak

Neure kabuz



Maider Segurola

Bi txuri, mesedez

Kosta zaio baina iritsi da udaberria. Eguna luzatu zaigu, bidegorriko overbookinga hasi da eta nola ez, ostalariek prest dituzte terrazak ere. Bakoitzak bere lokalaren kanpoaldean mahai eta eserlekuak pronto, parean pasatzen dena eguzki goxotan zerbait hartzeko tentazioan noiz eroriko zain.

Ez dut nik ezer terrazan aurka baina egia esan, azken asteetan herriko plaza nagusiak hartu duen itxurak zer pentsa jarri nau. Lehen ere baziren terrazak Okendon. Aurten ordea, bertan dagoen lokaletako batek orain arte terrazarako erabiltzen zuen espazioa itxitura batekin bereizi du eta modu honetan kalea, denona den espazio publikoa, beretzat hartu du erabat. Gune honetara sartzea tabernan bertan sartzearen pareko bihurtu baitute.

Terrazek espazio publikoa pribatizatzen dute. Gustatu ala ez, interes pribatuen eskura jartzen dute berez denona den gunea. Eta horretarako baime-na eskuratzeko ostalariek dagokiena ordainduko duten arren, aurrez aipaturiko adibidekoa baino era malguago batean egin litekeela iruditzen zait; jendearen pasabide naturalak errespetatuz, plazaren erabilera oztopatu gabe, herri-tarrona den espazioa inondik ere gela itxi bihurtu gabe,...

Ez da eztabaida berria eta ezta gurea bakarrik ere. Baina terraza denboraldia hasi den honetan, halako batean eserita zerbait hartzen ari garen bitartean gogoeta egiteko modukoa iruditzen zait.

Zorion agurrak



Iker

Zorionak Iker zure 10garren urtebetetzean! Muxu handi bat Nora,aitatxo,amatxo eta familiaren partetik.




Aiora

Zorionak printzesa, 9 urte dagoeneko! Txokolatzeko muxu potolo bat familia guztiaren partetik. Maite zaitugu!!!



Elene

Zorionak! Ongi pasa zure egunean maitia, sei muxu handi etxe-koen partetik!




Ekaitz

Zoriiiioonaak! Jarraitu zaren bezalakoa izaten, maitagarria. Egundoriontsua pasa dezazula lagunekin eta etxe-koekin. Amaiur, aitatxo eta amatxo.



Aimar

Zorionak txapel-dun!!! Oso ondo pasa zure 9. urtebetetzean. Muxu asko familia guztiaren partetik.



Xune

ZORIONAK prexioxi! 4 muxu potolo etxeko neskatxa haundiyai.



Koan

Zorionak maitia, 7 dagoeneko!!! Ze azkar igarotzen den denbora. Egundona izan, muak.



Maitane

Zorionak printzesa. Gozatu zure 8 urteez eta jarrai ezazu guri momentu onak ematen. Askote maite zaitugu. Iker, Laure eta ama.



Ihalar

Zorionak!! 7 muxu goxo etxeko familian partez... Muuaaaaaaaaa

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48, txintxarri@txintxarri.eus edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Bi marrako garajea alokatzen dut, oso handia, 15 metro koadro ingurukoa. Prezioa: 55 euro hilero. 943 37 61 15.
- Garaje marra alokairuan, 11 metro karratu. Donosti Etorbidean, sartzen erraza. 687 271 288.

Salerosketa

- Bidaietarako sehaska, hamaka, parketxo bat eta 9 eta 15 kg. arteko haurrarentzat kotxerako aulkia salgai. Prezioa negoziagarria. 673 256 566.
- Gazte-logela salgai. Armairua ispiluarekin, 1,05 m. ohea uda eta neguko koltxoiarekin, mesanotxea eta sinfonierra. 450 euro. 673 256 566.

Lan-eskaria

- Zaintzan eta garbiketan lan egin nahiko luke ten bi pertsonen bila nabil. 943 451 149.

- Pertsona adinduak, zein haurrak zaindu edo garbiketara lan egiteko neska eskaintzen da. Pertsona adinduak zaintzen esperientzia du. Lanean hasteko prest. 647 743 333.
- Zaintzan egingo nuke lan. Esperientzia eta ordutegi malgua ditut. 631 485 274.
- Arratsaldetarako, gauearako edota asteburuetarako lan bila nabil. Ume edota nagusien zaintzan eta garbiketan. 690 146 067.
- Etxean edota zaintzaile modura lan egiteko prest. Erreferentzia onak ditut. 648 90 67 82.
- Atariak, bulegoak edota etxeak garbitzen egin nahi nuke lan. Nagusiak ere zainduko nituzke. Elena, 673 25 65 66.
- Zaintzan edota garbiketan egingo nuke lan. Francisca, 647 27 61 33.
- Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko. Interna moduan edo gauez. Harremanetarako, 688 812 344.

Jaiotzak Heriotzak

Heriotzak

- Vicenta Echeverria Mayoz, maiatzaren 2an, 84 urte zituela.
- Lucia Sotillos Palomar, apirilaren 29an, 91 urte zituela.
- Inaxio Balerdi Zubeldia, apirilaren 26an, 89 urte zituela.
- Aurora Perez Prieto, apirilaren 25an, 90 urte zituela.
- Alberto Berasarte Dirube, apirilaren 24an, 85 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 06 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 07 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Igandea, 08 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 09 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteartea, 10 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 11 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 12 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso, Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

LANAK

Asfaltatze kanpaina martxan

Iñigo de Loiola eta Pablo Mutiozabal eremuan hasiko dira gaur

Lasarte-Oriako errepideen egoera tamalgarria ikusirik, Lasarte-Oriako Udalak kreditu aldaketa bitartez kaleak asfaltzeko aurrekontua onartu zuen 2015 urtean. Sasoeta auzoan hasi ziren lanak aste hasieran. Hurrengo eremua Iñigo de Loiola eta Pablo Mutiozabal izango da eta gaur dira hastekoak lanak.



Sasoeta pasealekuko asfaltatze lanak egin dira aste honetan.

TXINTXARRI

Astelehenean, Sasoeta pasealekutik kotxez igaro edo aparkatu nahi izan zuten herritarrek ezusteko ederra eraman zuten. Kalea itxirik zegoen, izan ere, asfaltatze lanak hasi baitziren.

Aste osoan zehar, bertan izan dira langileak zoladura fresatu eta nahasketa bituminoso beroko geruza berria zabaltzen.

Aparkalekuen momentuzko murrizketa egongo zela aurreikusirik, Andatza plazan aparketzeko baimena eman zuten eta erabilgarri izan da herritar askorentzat.

Eremua berria

Eguraldi ona lagun eta lan hauen martxa azkar joan dela ikusirik, Lasarte-Oriako Uda-

lak gaurtik aurrera Pablo Mutiozabal, Iñigo de Loiola, Juan de Garay eta Pintore kaleen asfaltatze lanak hasiko direla jakitera eman du.

Gaur, Pablo Mutiozabal eta Juan de Garay kaleetako galtzadako zorua berritzen hasiko direla aurreikusten da.

Asteartean Pintore kalean hasiko dira lanak eta hilaren 12an, ostegunarekin, Iñigo de Loiolatik jarraituko dute.

Hala ere, Udalak ohartarazten du, eguraldiaren arabera aldaketaren bat gerta daitekeela.

Seinaleak

Eremu honetan ere eragin saihestezinak izango ditu trafikoa eta ezingo dira aparka-

lekuak erabili. Horregatik, behin-behineko seinaleen bidez, noiznahi jakingo da zein errei ezin duten erabili ibilgailuek zirkulatzeko eta zeintzuk diren moztutako sarbideak.

Era berdinean, zein eremutan ezin den aparkatu ere adieraziko da.

Kale hauen asfaltatzeak dirauen bitartean, Sasoetako pasealekuaren antzera, Andatza plaza ordezko aparkaleku modura erabili daiteke.

Bidearen asfaltatzea amaitzen doan neurrian, hurrengo eraginak jakinaraziko dira.

Lasarte-Oriako Udalak lan hauen eraginez sortu daitezkeen eragozpenengatik barkamena eskatzen du.

KULTURA

Imanol Etxaberen liburu aurkezpena

Gaur arratsaldean, Manuel Lekuona kultur etxeko batzar aretoan liburu aurkeztuko du Imanol Etxabe herritarrek "La Mano del Destino - Libertad" autoargitaratutako lana da.

Argitaratuko duen lehenengo lana du Imanol Etxabek. "La mano del destino - Libertad" fantasia epikozko istorioa da. Halaber, filosofiaren "eragina" somatu daiteke egilearen arabera. Etorkizunera begira, "Vals con los dioses" izeneko eleberri eta kontakizun bilduma baten parte izango da. Bere blogean, dagoeneko, ipuin batzuk argitaratu ditu.

Aurkezpenean eleberria erosteko aukera izango da, eta etekinen zati bat Medicus Mundi Gipuzkoa erakundeak erango du. Azaldu duenez, Amazon plataformaren bitartez ere eskuratu daiteke. Bestela, sare sozialen bitartez edo bere "Escritor de blog busca lápiz" blogean Etxabekin harremanetan jarritik, lor daiteke liburuak.

Lasarteoriatar batzuek jadanik ezagutzen dute eleberria. Izan ere, liburuaren egunean Okendo plazan postua jarri zuen Etxabek.

MUSIKA ESKOLA

Udal musika eskolako ikasleak E-musik jaialdian

Donostia 2016 kultur hiriburutzako ekintzen barnean koka daiteke E-musik musika eskoletako ikasleen topaketa. Illunbe zezen plazan hasiera ekitaldia izango da gaur. Goizeko 11:00etan, bertako zein atzerriko 8.500 musika ikasle inguruk musika emanaldia eskainiko dute. Lasarte-Oriako Udal musika eskolako trikitilariak ere bertan izango dira.

Errepertorio anitza interpretatuko dute musikari gazteek, eta dantzak ere tokia edukiko du jaialdian. Euskarazko lehenengo operaren doinuekin, 'Txanton Piperrirekin', hasiko dute ekitaldia. Ondoren, Donostiako martxaren eta Europako ereserkiaren txanda etorriko da. Donostia 2016 hiriburutzarako espreski konposatutako 'Musikatu Bizitza' abestiarekin amaituko dute.

SAN PEDRO JAIK

Gaztetxoentzako danborradan izena emateko epea irekita

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 2016ko gaztetxoentzako danborradan izena eman daiteke jada, maiatzaren 10era arte. Manuel Lekuona kultur etxeko erakusketa gela ohian egin beharko da arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara.

Entseguak ekainean egingo dituzte Sasoeta ikastetxeko gimnasioan. Astelehenean eta asteazkenetan elkartzeko dira, 17:15etik 17:45era kantinera eta gastadoreak, eta 18:00etatik 19:00etara danbor eta barrilak.

AMARAUN KLUBA

Koloreak lantzeko tailerra

Amaraun Klubeko txikienei, HH2 mailakoei, zuzendutako tailer berria egingo da maiatzaren 10ean, asteartez, 17:30etik 18:15ak arte, Zumaburu ikastetxeko psikomotrizitate gelan.

Saio honetan koloreak landuko dituzte hainbat joko eta eskulanean bitartez eta bodypaint-a ere egingo da.

Aita, ama, aitona, amona, osaba edo izeba... haurrak heldu batekin batera parte hartu behar du ekintza honetan.

Informazio gehiago eta izena ematea 943 37 14 48 telefonon, aisia@ttakun.eus helbide elektronikoa edo Ttakuneko bulegoan eskainiko da.

BIYAK BAT

Zarautzera irteera

Gipuzkoako jubilatuentzako ekitaldia antolatu dute Zarautzen maiatzaren 14ean. Lasarte-Oriatik Biyak Bat jubilatuen etxeak bidaia antolatu du.

Goizeko 10:00ak aldera abiatuko dira, eta bisita gidatu bat egin ostean elkarrekin bazkalduko dute. Kartetan eta bingoan ere ariko dira. Amaitzeko, ezarriak frogatu eta gorputzak astinduko dituzte antolatutako karaoke eta dantzaldian.

Guztira, prezioa 28 eurokoa da, eta izena jubilatuen etxean eman ahal izango da. Gaur da izena emateko azken eguna eta goizeko 10:30etatik 12:30etara arte inskribatu ahal da.



'Las-Arte' erakusketa ikusgai Jalgin

Herriko Estudio del Pintor eskolako lagunek egindako lanekin erakusketa osatu, eta Jalgi Kafe Antzokian jarri dute ikusgai hilabete honetan zehar.

David Fernandez Iturbe irakasleak eta hainbat ikasleak -Mertxe, Esther, Mari Angeles,

Mari, Mari Carmen, Mariaje, Casi, Pedro, Isabel eta Guadalupek- margotutako hainbat koadro erakutsiko dituzte.

Estilo ezberdinak

Olio eta arkatez egindakoak dira margolanak. Estilo oso desberdinetako obrak ikus

daitezke Jalgin: paisaiak, erretratuak, eta abar.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, koadro horietako batzuk salgai daude.

Norbaitek erosteko interesa edukiko balu, Jalgi Kafe Antzokian zein Ttakuneko kideekin jarri beharko luke harremanetan.

Herria ikusteko betaurreko berriak

Argia aldizkariak egitasmo berria abiatuko du hurrengo astean Lasarte-Orian

Argia aldizkariak 'Lasarte-Oria ikusteko beste betaurrekoak' jardunaldiak antolatu ditu datorren astean. Astelehenean larunbatera 'Trantsizioak' erakusketa ikusi ahal izango da Antonio Mercero aretoan. Halaber, Ttakun Kultur Elkartearekin batera, herriko euskalgintzari buruzko mahaingurua egingo dute ostegunean.

TXINTXARRI

Euskalgintzarekin lotutako urteurren ugari ospatuko dira aurten Lasarte-Orian. Hori baliatuz, zenbait ekintza antolatu dituzte 1990ean gure herrian finkatu ziren Argia aldizkariako lagunek.

'Lasarte-Oria ikusteko beste betaurrekoak' izena jarri diote ekimenari. Besteak beste, Ttakun Kultur Elkartearekin batera herrian euskarak eta euskalgintzak izandako bilakaera aztertuko duen mahaingurua antolatu dute.

Hilaren 12an, Villa Mirentxun, egingo dute. Hiru hizlarik hartuko dute parte: Ttakun Kultur Elkartearen eta AEKko langile izandako Mailu Arruti, euskara zinegotzi ohi Pello Sasiain eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Marga Iturriza.

'Lasarte-Orian euskararen bilakaera. Atzera begira, aurrera begiratzeko' izenak

iradokitzen duenez, gure herriko hizkuntza egoeraren gorabeherak aztertuko dituzte.

Moderatzaile lanak Argia astekariko kazetari Onintza Iruetak egingo ditu eta arratsaldeko 19:00etan hasiko dira.

Trantsizioak

Mahaingurua ez da 'Lasarte-Oria ikusteko beste betaurrekoak' ekimeneko ekintza bakarra izango. Astelehenean hasita eta astebetez 'Trantsizioak' erakusketa ikusgai egingo da Antonio Mercero aretoan.

Azken 30 urtetan bildutako artxiboko argazkiak erakutsiko dituzte. Euskal Herriko gertakizun politiko eta sozial ugaritako irudiak bildu dituzte, batez ere 70eko eta 80ko hamarkadakoak.

Trantsizioaren "adiera zabal" erakutsi nahi du erakusketaren izenburuak. Frankoren heriotzatik gaur arte bitzitako aldaketak isladatu



'Trantsizioak' erakusketa ikusteko aukera egongo da, besteak beste.

ARGIA

dituzte, "lehen intsumituen garaietatik herri harresietara".

Beste herri batzuetan harrera ona izan du 'Trantsizioak' erakusketak. Hernanin, Oñatin edota Laudioko Gazte Danbada egon dira dagoeneko.

Maiatzaren 14ra bitartean bisitatu ahal izango da erakusketa, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Bisita gidatua

Asteartean Argia barrutik eza-

gutzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Industrialdeko 15. pabilioiean geratuta daude, 19:00etan.

Astekariaren historia eta gaur egungo komunikazio proiektuaren erronkak aztertuko dituzte. Aukera paregabea dute, beraz, aldizkaria nola egiten duten eta kazetarien lana ezagutu nahi dutenek.

Azaldu dutenez, herri komunikabide diren heinean, "kalea eta jendartea dira

komunikazio proiektuaren oinarri". Hori dela eta, azpimarratu dute "komunitatea" osatzen duten guztien arteko harremanak indartu nahi dituztela.

Lasarte-Oriako herritar eta eragileak gonbidatu dituzte antolatutako ekintzetan parte hartzera. Hala nola, Argiako irakurleei eta harpidedunei deialdia luzatu diete 'Lasarte-Oria ikusteko beste betaurrekoak' egitasmoraren hurbil daitezen.

Erketz EDTko kideak jaialdiz jaialdi

Lasarte-Oriako Erketz EDTko txiki, gazte, begirale eta musikari bat lehengo igandean, maiatzaren lehenenean Erreterian izan ziren Dantzari txiki egunean.

Erketz EDTrekin batera, Erreteriako Ereintza, Hernaniko Ttarla, Tolosako Udaberri, Urretxuko Lurra, Iruñeako Amaiur Iruñea, Oartzungo Hautzaro, Galdakaoko Andra Mari, Lezoko Murixka eta Zumaiako Txori Txiki taldeetako dantzari gazteak izan ziren. Guztira, 550 haur.

Goizean zehar, Erreteriako kaleetan barrena ibili ziren taldeak. Eguerdian, guztiak Gamon Zumardian batu eta emanalditxo bat eskaini zuten. Bazkal ostean, Modestoren eskutik erromeria doinuak izan ziren.

Baina ez da hau izango duten irteera bakarria izango, ekainean Sestaora ere joan-

go baitira, Sestaoko XXXI. Umeen euskal jaian parte hartzera.

Dantzari txiki

Hala ere, txango hori egin baino lehen Erketz EDTko Udalararen laguntzaz antolatzen duen XXVIII. Dantzari txiki eguna izango da herrian maiatzaren 29an, igandean.

Beste urte batez, herriko kaleak euskal dantzari txikiek beteko da goizean.

Arratsaldean, Kale Nagusian desfilea eta Okendo plazan ekitaldia izango dira.

Taldeko kideak lan eta lan ari dira hitzordu garrantzitsu honetarako guztia prest izateko.

Soka-dantza entseguak

Bestalde, Erketz taldea maiatzaren 28ko dantzari eguna eta ikasturte amaierako ekitaldia prestatzen ari da.

Hauetaz gain, San Juan bezperako ohiturari eutsiaz



Erketz Txikiko dantzariak, begiraleak eta txistularia Erreteriko Dantzari Txiki Egunean izan ziren lehengo igandean.

E. MUGICA

soka-dantza ere dantzatuko du.

Ekainaren 23a, osteguna izango da aurten eta ordurako guztia prest izateko entseguak hasiko ditu maiatzaren 10ean.

Asteartero 21:00etan Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko Zumaburu eraikineko gimnasioan bilduko dira dantza prestatzeko.

Saio irekiak izango dira eta horregatik, herritarrek gonbidatzen dituzte entseguetara hurbildu eta soka-dantzan parte hartzera.

zerbitzu mistoak

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedicura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Befileen permanentea eta findatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

Euskararen Maratoia badator!!

Asteazkenean aurtengo lelo eta zortzikotea aurkeztuko da, baita berrikuntzak ere

Lasarte-Orian 40 orduz euskaraz egitea, hori da erronka? Duela 30 urte, burutapena zirudien idea hori urtetik urtera forma hartu, errotu eta jaialdi handi bihurtu da. Ttakun kultur elkarte eta Lasarte-Oriako Euskara batzordeko kideak buru belarri ari dira lanean, urrian Euskararen 9. Maratoia ospatuko baita. Lehen urratsak eman dira eta maiatzaren 11n jakitera emango dituzte Gaztelekuan egingo den agerraldian.

TXINTXARRI

La u urte igaro dira, euskara bihotzetik Okendo plazara atera eta azkeneko 'Bero-bero' abestia entzun genuenetik. Hemendik bost hilabetetara berriro ere, 40 ordu irauten dituen euskararen jai handia izango da gurean eta Ttakun kultur elkarte eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordea lan eta lan dabilta hitzordua prestatzen.

Aurten gainera, urte berezia izango da, Euskararen Maratoiak 30. urte betetzen baititu. Baina Lasarte-Oriako euskalgintzaren barruan, ez

da urteurren berezia duen ekintza bakarra. Horregatik, aurreratu digutenez, elkarte eta eragile hauek guztiek tartexo bat izango dute Euskararen 9. Maratoian.

Aurkezpena

Berezitasun hau eta beste hamaika azaltzeko maiatzaren 11n, 19:00etan, Euskararen 9. Maratoiaren aurkezpena egingo da Lasarte-Oriako Gaztelekuan.

Maratoia zuzenduko duen zortzikotea, leloa eta irudia ezagutzera emateaz gain, agerraldian ezustekoak ere izango direla aurreratu dute antolatzaileek.



Bost hilabete falta dira Euskararen Maratoirako, eta, hurrengo asteazkeneko aurkezpenaren ostean, atzerako kontaketa hasiko da.

Elkarlana

Lasarte-Oriako elkarte eta eragile guztiak gonbidatu dituzte antolatzaileek, "elkarlanerako lehen lokarri" gisa.

Izan ere, Udaleko eta Ttakuneko lagunek azaldu modura, Euskarazko 40 orduko jai etengabea honen lehen

urratsak besterik ez baitira eman. Elkarte, eragile eta herritarren elkarlanari esker osatzen da egitaraua eta lan asko dago egiteke.

Eta ezin ahaztu arlo ezberdinetan egiten den bolondres lana edo proba berezietan parte hartzen duten herrita-

rrak. Lasarteoriarrak ez baitira ikusle edo partehartzaile soilik, Euskararen Maratoiaren parte ere dira. Horregatik, hauek ere gonbidatuak daude ekitaldi honetara.

Motorrak berotu eta aho-tsak prestatu, badator eta Euskararen 9. Maratoia!

Umorea eta hitza, Udaberriko bertso saioan



Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Ane Labaka izango dira berriro ere oholzza gainean.

Maiatzaren 14an, 22:00etatik aurrera, bertsozaleek hitzordua dute Manuel Lekuona kultur etxean. Ttakun kultur elkar-teak eta Erra! Bertso eskolak elkarlanean antolatutako 'Berrisuketan bertsoan' Udaberriko bertso saioa izango da.

Bertso saio berezia izan ohi da, bertsoa kultura adierazpen ezberdinekin uztartzen baita honetan. Aurreko urteetan literatura testuak, abestiak edo dantza izan ditu oinarri. Aurtengoan, berriz, bakarrizketak izango dira protagonistak.

Umorea nagusi

Oholtza gainean, bakarrizketa edo antzerki munduko jendea, zein horrelako emanaldietan lehen pausoak ematen ausartu diren herritar-rrak izango dira.

Bakarrizketetan gai ezberdinak jorratuko dira, baina hauek ez dira zertan bertsoen gaiak izango.

Izan ere, aurkezle lanetan Bea Egizabal izango baita eta bakarrizketak entzun ostean jarriko baitizkie gaiak bertso-lariei.

Erronka honi aurre egiteko, maila handiko hirukoa izango da: Ane Labaka herri-

tarra, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, emanaldian barre eta algarak ugariak izango dira.

Sarrerak

Bertso saioa ikusi nahi duten herritarrek Manuel Lekuona kultur etxeko leihatilan salgai dituzte dagoeneko sarrerak. Prezioa 5,50 euro da.

Baina Ttakun Kultur elkar-teak bere bazkideen artean bertso saioa bi sarrera zozketatu ditu. Onuraduna Ainhoa Illarramendi Isasi izan da eta doan gozatuko du emanaldiaz.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria • Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

ISLANDIA

aurora borealak
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -

BIDAIA TALDEAN
irteera Lasarte-Oriatik

Erreserbak eta informazioa bulegoan

NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

LABURRAK.-

Ohorezko Jubenilak egurrean

Ez die astirik emango sailkapeneko lehenengo taldeak harrapatzeko, baina gertu ibiliko dira. Sekulako denboraldi amaiera egiten ari da Ohorezko jubenil mailako taldea. Kostkas hartu zuten mendean pasa den asteburuan, 1-2. Garai-pen horrekin, 49 puntu bildu dituzte jada, eta bosgarren postuan dira sailkapenean; bi jardunaldi falta zaizkie liga bukatzeko.



Bosgarrenean ez, laugarren postuan dago emakumezkoen erregional taldea, 28 punturekin. Igoera fase bikaina ari dira egiten; hamasei partidatik bederatzi irabazi dituzte honezkerok. Azkena, Mutrikuren kontra, etxean: 3-0 nagusitu ziren urdin-beltzak.

Bikain amaitu dute liga Buruntzaldea IKTKo igerilari benjaminen

Denboraldi honetan ikasitakoa erakutsi zuten Buruntzaldea IKTKo benjaminen Ordiziako Majori kiroldegian, pasa den asteburuan. Taldekideei animoak eman eta denbora oso txukunak eginez, Kirol Zehaztasun Liga eta Test Jardunaldiak bukatu zituzten gaztetxoek, giro ederrean.

Honela baloratzen du gaztetxoek garapena Borja Apeztegia prestatzaileak: "Lan bikaina egin dute gure gazteek liga eta jardunaldietan zehar, denboraldi osoan zehar aurrerapausoak eman eta etengabeko hobekuntza erakutsiz. Zorionak denei, egindako lanagatik".

Giroko porra egiteko azken egunak

Ostadar SKTK antolatutako txirringarritza porra bueltan da. Gaur hasiko da aurtengo Italiako Giroa, eta txirringarrien zerrendak zein boletoak ohiko tabernetan daude jada, zaleek noiz beteko zain. Biharko 15:30ak arteko epea daukate herritarrek, parte hartzeko. Zazpi euro balio du boleto bakoitzak.

ISU Leihoak, gaur ala gaur

3. Nazional mailara igotzeko kanporaketei ekingo die gaur ISU Leihoak taldeak. Hirukide Plomix hartuko du etxean, 20:55etik aurrera. Partida bakarrera jokatu dira finalerdiak; irabazten duena finalera sailkatuko da. Playoffak jokatzeko sailkatutako beste bi taldeak Pescados Ferreres eta Lauburu KE dira.

Gipuzkoako 2. mailan ari den Cecilia Kebab Lasarte Ostadarek ere borrokatuko du mailaz igotzeko. Liga erregularraren laugarren postuan geratu ostean, Gamon Aker liderrarekin neurtuko ditu indarrak bihar, arratsaldeko zortzietan, Beraunen. Bigarren urtez jarraian igotzeko borrokatuko du taldeak.

TRIATLOIA.-

Triatloi denboraldirako prest

Bihar ekingo diote ofizialki triatloi denboraldiari Trinko taldeko kideek, Bermeon; Senperekoan izan ziren asteburuan

Uretan, bizikleta gainean zein lasterka dena emateko prest daude Trinko Lasarte-Oriako triatloi taldeko kideak. Denboraldia bihar hasiko dute ofizialki, Bermeon. Zita hori baino lehen, Senperekoan hartu zuten parte batzuek, iragan asteburuan, gorputzean kilometroak pilatu eta talde giroa sortzeko helburuz.



Senpereko taldekako triatloia osatu zuten Trinkoko zortzi kidek asteburuan. TRINKO

TXINTXARRI

Urtero egiten dute irteera Senperera, baina aurtengoa berezia izan da. Taldearen izena –Trinko Lasarte-Oriako triatloi taldea– eta ekipazioa estreinatu zituzten iragan asteburuan, herri horretan jokatu taldekako triatloian. "Taldea giroa sortzea eta taldekide berriek konfiantza hartzea dira helburuak", adierazi dute Trinkoko kideek.

Lauko bi talde eginda osatu zuten ibilbidea: kilometro t'erdia igerian, hamabost bizikletan eta sei korrika. Hemezortzigarren postuan sailkatu ziren Asier Gorostegi, Imanol Arteaga, Andoni Salsamendi eta Enaitz Ibarburu. 29. helmugaratu zen Leo Juarez, Javi Lopez, Mikel Olarra eta Mikel Izagirrek osatutako laukotea. "Maila aldetik paretsu ibiliko ziren bi talde osatu genituen, talde giroan konpetitza zelako helburu nagusia, errendi-

mentuaren gainetik", zehaztu dute Trinkoko taldekideek.

Hasiera ofiziala, Bermeon

Orain arteko entrenamenduetan eta Senperen pilotutako kilometroak gorputzean, bihar ekingo diote Trinkoko taldekideek "benetako triatloi denboraldiari", Bermeon. 750 metro egingo dituzte igerian, hogeikilometro bizikletan eta bost korrika.

Maiatzeko egutegian beste bat ere badaukate apuntatuta: Hondarribikoa, datorren aste-larunbatekoa. Egin beharreko distantziak Bermeokoen berdinak dira.

Zita garrantzitsuak ekaina eta uztailen

Gorria da nagusi ekaineko eta uztailerako egutegietan, kolore horrekin markatuta baitituzte Trinkoko kideek hilabete horietan jokatu diren hainbat proba. Zarauzko eta Donostia-

ko triatloiak jokatu dituzte ekainaren 11n eta 12an, hurrenez hurren. Hilaren 26an, berriz, Onditz oroimenezkoan hartuko dute parte.

Uztailen, Gasteizko triatloia izango dute erronka nagusia, hilaren 10ean, hain justu.

Arestian esan bezala, aurtengo osatu da Trinko Lasarte-Oriako triatloi taldea. Bidea hasten lagundu dieten babesleentzat esker hitzak izan dituzte taldeak: "Bidelagun ditugun babesleei eskerrak eman nahi dizkiegu: Cecilia fruta dendari, Patxi Larrañagari, Dotore jantzi dendari, TaPunturi eta Kebab zein Avenida tabernei".

Arteaga, Aizarnazabalen

Aizarnazabalen jokatu dituzten Euskadiko Duetlo txapelketan hartu zuten parte Imanol Arteagak, apirilaren 23an. Hiru ordu eta 50 minutuko denbora egin zuten, eta 39. postuan sailkatu, lan oso txukuna burutuz.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 7

Michelin, 11:00etan

Ostadar SKT - Beti Ona CD
Infantil txikiak, Errendimendua,
8. jardunaldia.

Martutene, Donostia, 12:00etan

Martutene KE - Ostadar SKT
Kadeteen Ohorezko maila,
29. jardunaldia.

Michelin, 12:30etan

Ostadar SKT - Dunboa Eguzki CD
Jubenil Ohorezko maila,
29. jardunaldia.

Michelin, 14:15ean

Ostadar SKT - Elgoibar CD
Infantilen Ohorezko maila,
txapelidunen fasea, 12. jardunaldia.

Michelin, 15:45ean

Ostadar SKT - Allerru KJKE
Emakumezkoen Lurralde maila,
igoera fasea,
17. jardunaldia.

Mintxeta, Elgoibar, 17:00etan

Elgoibar CD - Ostadar SKT
Erregionalen Ohorezko maila,
32. jardunaldia.

Iraeta, Zestoa, 18:00etan

Zestoa KB - Ostadar SKT
Jubenil Igo maila, igoera fasea,
17. jardunaldia.

Igandea 8

Michelin, 11:30etan

Ostadar SKT - Axular KKE
Erregionalen Igo maila, Kopa,
17. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 7

Michelin, 17:45ean

Lavie ZRT-Beltzak - Elorrio
Seniorren Euskal Liga.

PILOTA

Ostirala 6

Michelingo pilotalekua, 19:00etatik aurrera

Herriarte txapelketari ekingo dio gaur Lasarte-Oriak. Bergararen kontra jokatu ditu final hamaseirenak, joan eta itzulian. Kadete, jubenil eta senior mailakoak ariko dira.

Larunbata 7

Michelingo pilotalekua, 18:00etatik aurrera

Gorkak eta Arteaga II.ak promoziozko eskuz banakako finalerdiak jokatu

dituzte. Horren aurretik, Elezkano II.a eta Untoriaren kontra ariko dira Victor eta Ibai Zabala.

SASKIBALOA

Igandea 8

Benta Berri, Donostia, 12:00etan

Bera Bera DBN - Ostadar SKT
Errendimenduko kadete neskek,
Udaberri txapelketa, Igo jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 6

Udal Kiroldegia, 20:55ean

ISU Leihoak - Hirukide Plomix
Gipuzkoako Igo maila, igoerarako kanporaketak, finalerdia. Partida bakarrera jokatu da; irabazlea finalera sailkatuko da.

Larunbata 7

Herriko areto-futbol txapelketa,
Kontsolazio Liga

Kirol-gunea, 11:00etan

Urdaneta HK - Txoko

Kirol-gunea, 12:00etan

Viña del Mar - Also

Herriko txapelketa, playoffak

Udal Kiroldegia, 15:00etan

Izkiña - El Punto

Udal Kiroldegia, 16:00etan

Txindoki - TSST

Udal Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar Antonio - Presion Break
3. Nazionala, 26. jardunaldia.

Beraun, Orereta, 20:00etan

Gamon Aker - Cecilia Kebab Lasarte
Gipuzkoako 2. maila, igoerarako
playoffak, finalerdia.

Agenda

Igandea 8, 11:00etatik aurrera, Azkorte



Ohiturari jarraikiz

Santa Krutz eguna ospatzeko erromeri ederra egingo da Azkorteko ermitan. Ospakizunak 11:00etan hasiko dira ermitan egingo den mezarekin. Ttiriki Ttarrakako lagunen eskutik, erromeriaz gozatzeko aukera izango dute hurbiltzen direnek eta Mugerza anaiak aizkora lanetan eta Telleria anaiak harria jasotzen ere izango dira. Autobus zerbitzua egongo da Biyak Bat egoitza aurreko geltokitik, 9:00etatik hasita.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 8, 19:30ean

Helduen zinea atalean, 'Kiki, el amor se hace' filma eskainiko dute. Sarrera, 5,50 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Maiatzan zehar

Estudio del Pintor akademiako ikasleek eta irakasleak egindako lanak erakusgai izango dira. Nahiez gero lanak erosteko aukera dago. Informazio gehiago, Jalgin bertan edo Ttakuneko bulegoan.

ANTONIO MERCERO GUNEA

Maiatzaren 9tik 14ra

Argia Astekariak antolatuta, 'Trantsizioak' erakusketa izango da ikusgai. Argazkien bitartez, azken 40 urtetan izandako eraldaketa sozial eta politikoa islatzen dira.

Lasarte-Oria

XI. Musika Topaketak

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Gaur, ostirala 6, 19:30ean

XI. Musika Topaketen barruan, Carlos Rosat flauta jolea, Tomas Ruti fagot jolea eta Mario Telenti piano joleak musika eta poesia nahastuko duen emanaldia eskainiko dute. Danok Kide elkarteak antolatua.

Liburu aurkezpena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, ostirala 6, 19:30ean

Imanol Etxabe herritarraren 'La Mano del Destino -Libertad' liburua aurkeztuko da. Aurkezpenean saltzen diren liburuen ehuneko bat Medicos Mundi elkartearentzat izango da.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, ostirala 6, 22:00etan

Ttantaka taldeak 'El Florido Pensil - Neskak' antzezlan eskainiko du. Sarrera, 12 euro. Interneten, 12 euro eta kudeaketa gastuak.

Musika

SIGLO 20

Gaur, ostirala 6, 23:00etatik aurrera

Rul Djaren saioaz gozatzeko aukera.

Larunbata 7, 23:00etatik aurrera

Paolo Solo Djaren saioa izango da.

Aurkezpena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 7, 12:00etan

'GURAS.O.S: Gure haur eta gazteen babe-

sa, ardura eta osasunaren alde, erraustegia gelditu' ekimenaren aurkezpena.

Proiektzio digitala

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 7, 20:00etan

New Yorkeko Avery Fisher Hallen egindako 'La Dolce Vita' kontzertuaren proiektzioa. New Yorkeko Orkestra Filarmonikoak zinema italiarraren doinu ezagunenak eskainiko ditu.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 8, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'El niño y la bestia' filma eskainiko dute. Sarrera, 3,80 euro.

Balioetan Hezi

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Danok Kide elkarteak antolatutako, Balioetan Hezi XIII. jardunaldietan Baketik elkarteko Iker Uson kideak 'Sufrimendua Ulertuz' hitzaldi sorta eskainiko du.

Astelehena 9, 19:30ean

Sufrimendua ulertzeko gakoak eskainiko ditu.

Asteartea 10, 19:30ean

Sufrimendua nola sortzen den azalduko du.

Asteazkena 11, 19:30ean

Sufrimenduan murgildu eta laguntzari buruz ere hitz egingo du.

Herritarren txokoa

Udaberri festa marrazki erakusketa

Aterpea Merkatarri elkarteak maiatzaren 13an Udaberri Festa antolatuko du. Hoenn barruan, bere dendetan hauren marrazki erakusketa egingo du maiatzaren 9tik 13ra.

Egun horietan, hurrek haien marrazkiak bilatu beharko dituzte Lasarte-Oriako dendetan. Aurkituz gero, oparitxoak jasoko dute.

Italiara bidaiak

Uda honetan Roma, Florentzia... aldeira modu independentean bidaiatzeko 40 eta 55 urte arteko pertsonak osatutako taldea sortu nahiko nuke. Anima zaitetz! Harremanetarako, 667 075 139, Asun. WhatsAppera ere erantzuten du.

Hemeroteka

Duela 1215 ale



Tripontzi jangelari buruzko erreportajea argitaratu genuen 1998ko maiatzean. Jangela hamalu urte lehenago sortu zen Zumaburu auzoan gurasoen ekimenez eta 1992. urtean Udalak bere gain hartu zuen. Bertan egiten zen janaria eta egunero 2 eta 16 urte arteko ehun gazte inguru biltzen zituen. Begiraleekin eta garaiko Hezkuntza Batzordeko lehendakari Juan Perezekin hitz egin zuen TXINTXARRIK honen berri izateko.

Begiraleek dietista batzuen laguntzaz hiruzpalau menu prestatu eta horiek eredu hartuta bazkari ezberdinak prestatzen ziren bertan. Era honetara, elikadura orekatua zuten herriko txikiek eta begiraleek azpimarratu bezala, "hemen denetarik jaten dute eta denetarik jaten ikasten dute".

Prezioa eta jangelak eskaintzen zuen malgutasun txikia ziren orduan gurasoek zituzten kexak. KPlari eta umeen kopuruaren jaitsierari egozten zizkion Juan Perez udal ordezkariak jangelaren prezioaren zenbatekoari. Inguruan udal-jangela Hernanik bakarrik zuela aipatu eta bertan janaria kanpotik ekartzen zela ere azpimarratzen zuen.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

Iraia Iparragirre Realeko jokalaria

“Psikologikoki asko eskatu dit denboraldi honek”

Emakumezkoen futbolaren elitea ari da ezagutzen Iraia Iparragirre herritarra, Realean

Burugogorra, irekia, eta, batez ere, baikorra. Gisa horretako ezaugarriak ere oso balekoak dira futbolari batentzat, kirol horretan dena ez baita teknika eta fisikoa. Galde diezaiotela bestela Iraia Iparragirrerri. Min hartuta igaro du denboraldiaren parte gehiena, eta esperientzia horretaz asko ikasi duela azpimarratzen du. Egunero-egunero esnatzen da filosofia berarekin: urrats txikiak eman, gauza handiak lortzeko. Debuta egin du jada, baina ez da konformatzen horrekin, inolaz ere.

Iñigo GONZALEZ SAROBE

Futbola uztekoan zen Iraia Iparragirre (Lasarte-Oria, 1995), pasa den denboraldi amaieran Realean deia jaso zuenean. “Txiki-txikitik eduki dudana ametsetako bat izan da Realean jokatzera, eta, horrelako trenak bizitzan behin igarotzen direla kontuan hartuta, zer egingo nuen bada, pasatzen utzi?”, dio.

Trena hartu zuen Iraiak, baina lesioak tarteko, aurtengo sasoiaren ez ditu kilometro asko egin oraindik. Apirilean egin zuen debuta emakumezkoen Superligan, Estatuko futbol maila gorenean.

Erraza izan al da Realaren trena hartzea?

Ez, ez da erraza izan. Aldaketa asko bizitu nituen denbora gutxian: elitera jauzia, egunero entrenatu, joko-erritmoa... Egokitu egin behar da gorputza aldaketa horietara. Nirekin batera jokalarri berri gehiago etorri ziren taldera, baina haiek esperientzia daukate Superligan, ohituagoak daude. Niretzat berria izan da.

Estres horren eraginez lesionatu nintzen denboraldi-aurrean: hankeko behatz txikia hautsi nuen.

Arazo hori gairiditu eta taldearen dinamikan sartzen ari zinenean, beste lesio bat.

Denboraldi erdi baino gehiago eman dut lesioetatik osatzen. Realera iritsi, Superligan jokatu eta erakutsi nahi izateak balio duzula taldean egoteko, baina arazo fisikoak tarteko ezin izatea... Frustrazio asko eragiten dute horrelako egoerek. Nik, ordea, ez dut hori sentitu, hasieratik esperientzia berri baten gisan hartu eta eraman dudalako.

Psikologikoki asko eskatu dit urte honek, baina gauza positibo ugari ateratu ditut, eta asko ikasi ere bai.

Zelaitik at hilabete dezente igaro dituzu. Beste perspektiba batetik ikusten al duzu futbola orain?

Gauzak beste era batera planteatzeari ekin nion min hartuta egon bitartean. Ez zen ‘jokatu egin nahi dut’, baizik eta ‘ahalik eta ondoen osatu nahi dut, esperientziak asko ikasi eta nire gorputza ezagutu’.

Gogoan dut deialdian aurreneko aldiz sartu nintzenekoa. Satisfazio handia sentitu nuen, eta pentsatu: ‘Iraia, lortu duzu azkenean deialdian sartzea’.

Deialdian sartzea erdietsi duzu, eta urrats bat gehiago eman: debut ofiziala egin duzu.

Oviedo Modernoren aurkako partidaren jokatu nituen denboraldiko aurreneko minutuak.

Hasieratik aritu nintzen, eta norgehiagoka osoa jokatu. 1-2 irabazi genuen.

Igor San Miguel entrena-tzaileak esan zidanean jokatu egingo nuela, urduritu egin nintzen apur bat. Gero, aldiz, lasaitzen joan nintzen; beroketa ariketak egin bitartean buruari bueltak ematen segitzen nuen: ‘Bizi osoa daramazu futbolean, eman dakizuna, ez duzu ezer berririk erakutsi behar. Imaginatu Añorgan zaudela’, pentsatu nuen. Taldekideek ere asko animatu ninduten. Niretzat ikaragarri balio du horrek.

Taldekideak aipatu dituzula, zer moduzko giroa daukazue aldagelan?

Astean ordu asko igarotzen ditugu elkarrekin, eta erlazio ona dugu. Jokalarri batzuekin besteekin baino afinitate handiagoa daukat, baina denekin harremanak gustatzen zait.

Elitean ari gara jokatzeko Superligan. Hamaikakoan sartzeko lehiakortasun hori nabaritzen da entrenamenduetan. Intentsitate handiko saioak egiten ditugu.

Astean zeharreko lan hori islatzen ari da asteburuetan ere. Sekulako denboraldia egiten ari zarete.

Pasa den urtean ozta-ozta libratu zen taldea kategoriatik galtzetik, eta, aurtengo laugarren goaz sailkapenean, 49 punturekin. Partida batzuek falta dira oraindik liga bukatzeko, baina Erreginaren Kopa jokatzeko sailkatu gara jada, hainbat urte eta gero. Harrobikoak eta jokalarri euskaldunak kanpotik etorri diren beste hainbatekin uztartzeko apustua egin zuen Realak



Denboraldia amaitu bitartean minutu gehiago jokatzera du helburu Iraiak.

udaran, eta primeran ateratzen ari da orain arte.

Liga amaitzeko falta diren norgehiagoketan zeintzuk dira zuen helburuak?

Sailkapenean atzetik dauzkan taldeekiko aldea handitzea, partida bakoitzean dena emanez, eta laugarren postua behingoz bermatzea.

Niri dagokidanez, ahalik eta minutu gehien jokatu nahi ditut. Ongi ateratu naiz lesiotik, indartsu sentitzen naiz, erakutsi nahi dut hamaikakoan sartzeko gai naizela.

Jokalarri gisa zeintzuk dira zure ezaugarriak?

Burugogorra naiz, irekia, eta, batez ere, baikorra. Egoerei

era baikor batekin aurre egiteak plus bat ematen dit.

Normalean erdiko atzelari gisa aritzen naiz, eskuin hegaletik ere bai noizean behin. Nire postu kuttunena erdilarriarena da, hala ere; hori ez dit kenduko inork. Añorgan hasi nintzen atzeko lerroan jokatzeko, eta hor segitzen dut.

Emakumezkoen futbolaren egoeraren inguruan ere baikorra al zara?

Poliki, baina aurrerapausoak ematen ari gara. Esaterako, gero eta norgehiagoka gehiago ematen dituzte telebistaz. Hala ere, lan asko egin behar da oraindik, baina baikorra naiz. Pauso txikiak emanez, gauza handiak lor daitezke.

Elkarrizketa osorik txintxarri.eus webgunean



IES BHI
LASARTE • USURBIL



KALITATEA
HEZKUNTZAN

**LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA**

• D.B.H. • BATXILERRA

**AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 2tik 12ra**




www.instilasarte.net • lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - Lasarte-Oria • Tel. 943 37 28 52 / 943 37 22 77